



**DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA, UHARTEKO ESTABLEZIMENDUETAKO
ERROTULUETAN EUSKARA ERABILTZEKO.**

2021. urtea

Uharteko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, diru-laguntzak emanen dizkie udalerriko establezimenduei jarritako errotulazioan euskara erabiltzen badute (fatxada, erakusleiho, eguzki-oihal eta ibilgailu komertzialetan), jarraiturik honako

OINARRIAK

LEHENA.- Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honek arautzen dituen diru-laguntzen xedea da errotulu berrien gastua, hein batean, ordaintzea establezimenduak errotulu berrian euskara erabiltzen badu. Diru-laguntza hauek 2020. urteko aurrekontuko 3350-47000 – *Errotulazio elebidunentzako diru-laguntzak* diru-sailaren kontura joango dira. Xede honetarako, gehienez ere, 1.000 € erabiliko dira.

BIGARRENA.- Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

2.1. Diru-laguntza eskatu ahalko dute haien establezimenduko errotulazioan (fatxada, erakusleiho, eguzki-oihal eta ibilgailu komertzialetan) euskara erabiltzen duten herriko merkataria.

2.2. Dendariak ez du diru-laguntzarik jasoko errotulu berrian izen berezia soilik agertzen bada; adibidez, "Etxarren" edo "Pinpilinpauza". Aldiz, jasoko du diru-laguntza izen generikoa ere agertzen bada, esaterako, "Etxarren estankoa" edo "Pinpilinpauza haur-jantziak".

2.3. Diru-laguntza jaso ahal izateko errotuluak zuzen idatzita egon beharko du. Horretarako, laguntzen onuradun izan daitezkeen haiek Udaleko Euskara Zerbitzuaren doako itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua erabili ahalko dute.

2.4. Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz egiten badira, hizkuntza bakoitzean agertzen den testuak antzekoa izan beharko du neurrian eta gainerako ezaugarrietan.

HIRUGARRENA.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Diruz lagunduko dira fatxada, erakusleiho, eguzki-oihal eta ibilgailu komertzialetako errotulazioa, bai euskara hutsean idatzita badaude nola euskaraz eta gaztelaniaz.

LAUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

4.1. Eskabideak indarreango urtean zehar aurkeztuko dira, behin errotulu berria jarrita.

4.2. Eskabideak Uharteko Udalaren erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, deialdi honetako 5. oinarrian zerrendatzen den agiriekin batera.

BOSGARRENA- Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioa.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

- a. Eskatzailearen NAN zenbakia.
- b. Errotuluaren faktura (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua).
- c. Errotuluaren argazkiak.
- d. Diru-laguntza jasotzeko nahi den banku-libretako IBAN zenbakia.

SEIGARRENA.- Eskabideen azterketa eta ebazpena.

6.1. Euskara Zerbitzuak aurkeztutako eskabideak aztertuko ditu eta behar den txostena egin. Behin Euskara Zerbitzuaren txostena jasota, Udalaren Gobernu Batzordeak erabakiko ditu jasotako eskaerei dagozkien diru-laguntzak.

6.2. Diru-laguntzak erregistroko dataren arabera hurrenkeran esleituko dira, diru-saila agortu arte.

6.3. Uharteko Udalak errotulu berrien gastuaren %50eko laguntza emanen du establezimenduak errotulu berrian euskara erabiltzen badu. Gehienez ere 500 euroko laguntza emanen du errotulu berri bakoitzeko.

6.4. Euskara Zerbitzuaren txostena aldekoa izanda ere, diru-laguntza ematerik ez badago, kontu-saila agortuta dagoelako, eskatzaileak berriro eskatu ahalko du diru-laguntza hurrengo urteko lehenengo hiru hilabeteetan. Udalak horrela jakinaraziko dio eskatzaileari.

6.5. Diru-laguntzak Alkatetzaren Ebazpena bidez emanen dira.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpena emateko epea.

7.1. Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emanen da.

7.2. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik eman gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.



ZORTZIGARRENA.- Jakinarazpena edo argitaratzea.

8.1. Kontzesio ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie 2011ko abenduaren 22ko (251 zenbakiko NAO n argitaratua) Udal Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera.

8.2. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaio eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea. Ebazpena Uharteko Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da.

8.3. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtso hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- a. Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- c. Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

BEDERATZIGARRENA.- Diru-laguntzen ordainketa.

9.1. Emandako diru-laguntzaren ordainketa burutuko da diru-laguntzak ematen dituen ebazpena egin eta biharamunetik kontatuta hilabeteko epean.

Uharte, 2021eko maiatza